

KANBO HERRIA

Pirinio Atlantikoetako departamendua

ERABAKIEN AKTA

2021eko APIRILAREN 12ko

HERRI BILTZARRAREN SAIOA

Bi mila eta hogeita bateko apirilaren hamabian biltzera deiturik, herriko biltzarra Christian DEVÈZE, jaun auzapezaren lehendakaritzapean bildu da. Biltzarra arratseko 7etan hasi da.

Hor ziren: Christian Devèze auzapeza, Eliane Aizpuru, Jean-Noël Magis, Yolande Huguenard, Didier Irastorza, Marie Aristizabal, Robert Poulou, Christiane Hargain-Despéries, Vincent Goytino, ordeak, Véronique Cadepond-Larronde, Peio Etcheleku (21:20tik goiti), Corinne Othatcegy (19:40 arte), Jean-Paul Eyherachar (21:40tik goiti), Nicole Amestoy, Jean-Jacques Lassus, Isabelle Ayerbe, Jean-François Lacosta, Roger Barbier, Sébastien Carre, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Lilian Hirigoyen, herri kontseilariak.

Ezin etorriak: Peio Etcheleku (21:20 arte), Corinne Othatcegy (19:40tik goiti), Jean-Paul Eyherachar (21:40 arte), Maud Gastigard, Bernadette Remeau, Carmen Gonzalez, Michel Duthilleul, cherri kontseilariak

Ahalordeak: Corinne Othatcegy-k Yolande Huguenard-i 19:40tik goiti), Jean-Paul Eyherachar-ek Christian Devèze-ri (21:40 arte), Maud Gastigard-ek Sébastien Carré-ri, Bernadette Remeau-k Roger Barbier-i, Carmen Gonzalez-ek Christiane Hargain-Desperies-i, Michel Duthilleul-ek Nathalie Aïçaguerre-ri.

– Saioko idazkariaren izendapena.

Biltzarkideek aho batez, Isabelle AYERBE hautatu dute saioko idazkari izateko.

Bordart etorbidearen zabaltzea – lur sailak eremu publikora sartzea: jabeen izenen aldatzea (Magis jaunak aurkeztua).

2020ko martxoaren 2ko erabakiarekin, Herri Biltzarrak 72 zenbakiko Bordart deitu herriko bidea zabaltzeko, lur sail baten eskuratzea eta eremu publikora pasatzea onartu zuen.

Lur sailaren jabeak ez dira erabaki horretan izendatzen direnak.

Herri Biltzarkideei eskatzen die lur saila eman duten jabeen izena aldatzea 02-03-2020-023 zenbakiko erabakian.

Aho batez onartua.

30 – Ipar Euskal Herriko ToLFEP-ekin funts ekintza programa (Magis jaunak aurkeztua).

2020ean THP onartu zenetik, Herriko Etxea eraikitzeke eskaeren emendatzeaz ohartzen ari da. Egia bada THP-k herri erdigunearen inguruko eremuetan funts eraikigarriak izendatzen dituela, baina halere, zoruen artifizializazioa mugatzeko arauak direla-eta, Herriko Etxeak lur funtsen politika azkarra bideratu du, programa berriak erdigunean zentratzeko, bereziki gehiago erabiliak ez diren leku eta higiezinetan. Herriko etxeak gauzak aurrez ikusi nahi ditu eta jokagaiak proiektu bilakatu, eta horretarako ezinbestean lur funtsen politika bat eraiki behar da, eta lur funts erreserbak osatzeko ekintzak ere abiatu behar dira.

Herriko Etxeak asmo horrekin jo du Ipar Euskal Herriko Tokiko Lur Funtsen Erakunde Publikoarengana (ToLFEP/EPFL), horrek baititu herriko etxeentzako lur funtsei buruzko ingeniari-tza eginkizunak betetzen. Lankidetzaz horri esker, Herriko Etxeak aholkularitza zerbitzua jasoko du, baita lur funtsetan eskuhartzeko gaitasuna ere.

Herri mailako gogoetarekin batera, lehengo « Beaulieu » osasun zentroaren eremua lehentasun bilakatzen da epe laburrean eskuhartzeko.

Herri Biltzarrari eskatu zaio ToLFEParengana jotzea onartzea, honako helburuekin:

- Herria bere lur funtsei buruzko estrategia eta ekintzak definitzen laguntzeko, herriak antolamendu politika publikoak gauzatzeko gaitasuna izan dezan,
- Aldi berean, lur funtsen zainketa/behaketa eginkizuna segurtatzea,
- ToLFEParen laguntza eskatzea, « Beaulieu » osasun zentroa eskuratzeko, eta hala balitz, 2021eko ekainean izanen diren enkante salmentetan parte hartzeko,
- Hitzarmen baldintzak aurkeztu diezazkion hauek prest izanen direnean.

Aho batez onartua.

Corinne Othaceguy anderea gelatik atera da.

31 – Langileria: enplegu sortzea (Auzapezak aurkeztua).

Herri Biltzarrari eskatu dio 2021eko apirilaren 13an hasiko den denbora osoko teknikari laguntzaile postu iraunkor baten sortzeari buruz bere iritzia ematea, eta 2021eko maiatzaren 1etik urriaren 31erako Arnagako baratzeetan hartzeko denbora osoko denboraldi-postu baten sortzeari buruz ere, azalpen ohar sintetikoan aurkeztua denaren arabera.

Aho batez onartua.

32 – Dohaintza (Auzapezak aurkeztua).

Herri biltzarrari proposatu dio Gourdin jaunak Edmond Rostand museoarentzako eskaini nahi dituen objektuen (bilkari fonografoa, ezkozko zilindroak, eta diskoak) eta zilindro horien digitalizatzeko 1 000 €ko dohaintza onartzea.

Aho batez onartua.

33 – Finantzak: 1069 kontuaren garbitzea (Auzapezak aurkeztua).

Herri Biltzarrari eskatu dio baimena eman diezaion « 1069artikulua, 1997ko soberakin kapitalizatuen berriz hartzea – etekinen gaineko kargen soberakinaren neutralizazioa » aurrekontuz kanpoko kontua garbitzeko, kontularitzako 1068 artikuluan sartuz (funtzionamendu etekin kapitalizatuak), 28 988,55 €-ko kopuru batentzat, azalpen txosten sintetikoan aurkeztua denaren arabera.

Aho batez onartua.

34 – Bertako zergak: tasaren finkatzea (Auzapezak aurkeztua).

Aitzineko urteetan, zerga tasaren gora-behera inflazio tasaren araberakoa zen nagusiki. Inflazio tasa 2020ean %0,50ekoa da. Emendatze hori biziki xumea denez, eta zergadunen eros-ahalmena ez kaltetzeko, Lur Funts Eraiki eta Ez Eraikien zergen tasa 2020koaren pare uztea proposatu dio Herri Biltzarrari, hots:

Funts Eraikiak: %10,88

Funts Ez Eraikiak: %25,46

Jakin behar da, Herri Biltzarrari 2021erako proposatu zaion Funts Eraikien Zergaren tasak herriaren tasa (%10,88) eta departamendukoa (%13,47) biltzen dituela, hots %24,35 eta Funts Ez Eraikiena %25,46

Aho batez onartua.

35 – Elkarteentzako diru laguntzak (Aizpuru andereak aurkeztua).

Herri Biltzarrari eskatu dio 2021 urtean elkarteei emango zaizkien 279 770€ko dirulaguntzei buruz bere iritzia ematea, azalpen ohar sintetikoan aurkeztua denaren arabera

Gehiengoz onartua.

Corinne Othatcegy andereak ez du "USC rugby" elkartearen dirulaguntzaren bozkan parte hartu.

Bozkan parte hartu ez dutenak: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul, Lilian Hirigoyen.

36 - GEUZaren dirulaguntza (Auzapezak aurkeztua).

Herri biltzarrari eskatzen dio herriko GEUZari 160 000 €ko dirulaguntza ematea 2021 urterako.

Aho batez onartua.

37 – Eskolen kutxarako 2020ko dirulaguntza (Aristizabal andereak aurkeztua).

Herri Biltzarkideei proposatu die eskolen kutxarako zuzkidura 6 787 €-tan finkatzea 2021 urterako, azalpen ohar sintetikoan aurkeztua denaren arabera.

Aho batez onartua.

38 – Aurrekontu nagusia: 2021eko hasierako aurrekontuaren bozkatzea (Aizpuru andereak aurkeztua).

Herri Biltzarrari proposatzen dio 2021ko aurrekontu nagusiko hasierako aurrekontua onartzea, zeinean funtzionamendu atala 6 271 104,00 €-tan orekatzen den, eta inbertsioena 4 497 322,11 €-tan.

Peio Etcheleku eta Jean-Paul Eyherachar jaunak gelan sartzen dira.

Gehiengoz onartua.

Peio Etchelekuk ez du "Mixel Labeguerieren Lagunak" elkartearen gastuen bozkan parte hartu.

Kontra bozkatu dutenak: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul, Lilian Hirigoyen.

39 – Hilobi eta columbariumen aurrekontu erantsia: 2021eko hasierako aurrekontuaren bozkatzea (Aizpuru andereak aurkeztua).

Herri biltzarkideei galdegina zaie 2021ko hilobi eta columbariumei buruzko aurrekontu erantsia onartzea, funtzionamendu saila baizik ez duelarik eta 27 303 €-tan orekatzen dena.

Aho batez onartua.

Auzapezaren erabakien komunikazioa (Auzapezak aurkeztua).

Auzapezak Herri Biltzarkideei azaltzen dizkie, azalpen ohar sintetikoan agertzen diren, bere eskuordetzaren esparruan hartu dituen erabakien berri.

Solasgai guztiak landurik, saioa 21:45ean bukatu da.